



**HEDATU**  
euskararen arnasmugareti  
barozko hezkuntza proiektua



**UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA**



# HEDATU

**ARNASGUNEEN HEZKUNTZA  
PROIEKTUA**

*Hezkuntza zentroentzat  
azalpen txostena*

## AURKIBIDEA

---

<b>1. SARRERA .....</b>	<b>2</b>
<b>2. ZER DA UEMA? .....</b>	<b>2</b>
<b>3. TESTUINGURUA .....</b>	<b>3</b>
<b>4. PROIEKTUA ETA HARTZAILEAK .....</b>	<b>5</b>
4.1. IRAKASLEAK.....	5
4.2. IKASLEAK.....	6
4.3. GURASOAK.....	9
<b>5. HEZKUNTZA EZ ARAUTUA.....</b>	<b>9</b>
<b>6. ERRONKA: SISTEMATIZAZIOA.....</b>	<b>10</b>

## 1. SARRERA

---

Txosten honen helburua da UEMAREN, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen, *Arnasguneetarako HEDATU hezkuntza proiektua* aurkeztea. Herritarren sentsibilizazioan, ahalduntzean eta aktibazioan eragiteko asmoz, hezkuntza komunitateko hiru zutabetan eragin nahi da egitasmo honekin: irakasle eta hezitzaileak, ikasleak eta gurasoak. Txosten honetan jaso dira hezkuntza proiektuaren nondik norakoak, testuingurua, ibilbidea eta kokapen teorikoa. Gainera, proiektuaren hartzaile mota bakoitzarekin ziklo bakoitzean lantzen diren edukien berri jaso da. Horrez gain, proiektuaren indargarri diren saio osagarrien inguruko informazioa eta hezkuntza ez arautuan egiten den lana ere aurkeztu dira.

## 2. ZER DA UEMA?

---

**Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)** euskararen normalizazioaren alde lan egiten duen erakundea da. UEMAREN bereizgarria da, ordea, euskararen arnasguneekin eta udalerrri euskaldunekin lana egiten duela. Hau da, %70etik gorako euskaldun indizea duten udalerrriak dira UEMAKO kide. 2023 hasieran, Hego Euskal Herriko 97 udalerrrik osatzen dute UEMA, eta horiek 300.000 biztanle inguruko lurruna osatzen dute.

UEMAREN arabera, udalerrri euskaldunek paper garrantzitsua dute euskararen normalizazioan. Euskara biziko bada, ezinbestekoa izango da udalerrri euskaldunak zaindu eta zabaltzea.

Honakoak dira, gaur gaurkoz, UEMAREN lan-ildoak:


- Udalerrri euskaldunen erabateko hizkuntza normalizazioa lortzea.
- **Udalerrri euskaldunetako herritarrak sentsibilizatu eta ahalduntzea.**
- Udalerrri euskaldunek osatzen duten euskararen arnasgunea saretu eta zaintzea.

UEMAREN hezkuntza proiektuak bigarren lan-ildoari erantzuten dio, hain zuzen.


### 3. TESTUINGURUA

Azken urteetako datuek erakusten dute gune euskaldunenetan euskararen ezagutza beherantz doala; eta, are gehiago, erabileran izan dela jaitsiera nabarmenena. Hori azaltzeko hamaika faktore izenda daitezke: hirigintza ereduak, immigrazioak, egoera sozioekonomikoak, kultur ohiturak... Horien artean, hain zuzen, ikusi da beharrezkoa dela herritarren hizkuntza kontzientzian eragitea. Hain zuzen, egitasmo honek hezkuntza komunitatearen ahalduntzean eragin nahi du; euskaraz egiteko hautuan, alegia.


Azalpenak datuetara ekarrita, honakoa diote EUSTATEk argitaratutako azken zentsuko datuek, 2021ekoek. **Euskararen ezagutzari** dagokionez, gune euskaldunenetakoa da galera handiena: 1981ean, %90etik gorako euskaldun batez bestekoa zuten udalerrietan, 11 puntu egin du behera euskaraz dakitenen kopuruak. Gainontzeko guneetan, 2001etik aurrera nabari da jaitsiera, nahiz eta kasu gehienetan ez den nabarmena.



**Lehen hizkuntzari**, 0 eta 4 urte artean lehentasunez jasotako hizkuntzari, dagokionez, jaitsiera nabarmenagoa da udalerrri euskaldun guztietan. Kasu honetan ere, jaitsiera nabarmenena %90etik gorako batez bestekoa zuten arnasmuneetakoa da.



**Etxeko erabilera** da hirugarren aldagaia, eta gune euskaldunenetan ere, batez beste, %64 ingurukoa da. Jaitsiera 27 puntu pasatxokoa da. Gainontzeko guneetan ere jaitsiera nabari daiteke.



Aurrez esan bezala, arnaguneek eta udalerririk euskaldunek garrantzi handia dute euskararen normalkuntzan. Udalerririk horiek erakusten dute posible dela euskaraz bizitzea; eta, horiei esker, hizkuntza belaunaldiz belaunaldi transmititzeaz gain, biziberritu eta zabaldu egiten dela, garai eta gune berrietara egokituz.

Testuinguru horretan, UEMAk beharrezko ikusten du herritarren kontzientzian eragitea. Helburu horri erantzuteko asmoz sortu da HEDATU egitasmoa, eskolak euskararen ezagutzan eragiteaz gain, euskaraz egiteko hautuan ere eragiteko aukera izan dezan.

## 4. PROIEKTUA ETA HARTZAILEAK

---

Aipatu bezala, HEDATU hezkuntza proiektua hezkuntza komunitatearen hiru zutabe nagusietara bideratuta dago: irakasleak, ikasleak eta gurasoak. Zutabe bakoitzari begira norberari egokitutako lanketak bideratzen dira.

### 4.1. IRAKASLEAK

Irakasleek etengabeko harremana dute ikasleekin, txikien kasuan erreferente nagusiak dira ikastetxeetan. Horregatik, ikasleen hezkuntza prozesuan, balore soziolinguistiko egokiak transmititzeko prestatzea izango da irakasleengandik lortu behar dena. Horretarako, ezinbestekoa izango da irakasleek oinarrizko kontzeptu soziolinguistikoez gain, egungo errealitatearen datuak ezagutzea, lan egiten duten udalerraren izaera ezagutzea, eta udalerrri euskaldunek euskararen berreskurapen prozesuan jokatzeko duten paperaren kontzientzia izatea. Horrez gain, egunerokoan ikastetxean hizkuntzaren kudeaketan eragiteko eta euskarari eusteko estrategiak izatea ere ezinbestekoa izango da.

Horretarako, UEMAk irakasleentzako bi formazio saio eskaintzen ditu ikastetxe bakoitzean.

#### 4.1.1. SOZIOLINGUISTIKARI BURUZKO FORMAZIO SAIOA

Lehen saioan, irakasleei aurrez aipatu diren kontzeptu soziolinguistikoaren inguruko formazioa ematen zaie lehenik, bizi diren udalerraren egoera soziolinguistikoaren argazkia egiten zaie, eta ikasgeletan ikasleekin landu ahal izateko UEMAk prestatua duen materialaren nondik norakoak azaltzen zaizkie. Ordu eta erdiko iraupena du, eta HHTik hasi eta Batxilergoa arteko irakasle guztiei dago zuzenduta.

#### 4.1.2. IKASGELAN EUSKARARI EUSTEKO ESTRATEGIEN FORMAZIO SAIOA

Formazio orokorraz gain, ikasgelarako estrategien inguruko formazio saioa sortu du UEMAk. Gero eta ikastetxe gehiagotan kezka atzeman da hainbat aldagai tarteko (ikasle etorri berrien gorakada, sare sozialen eta baliabide teknologikoen erabilera...) euskara indartsu zegoen ikasgeletan erderarako joera nagusitzen ari dela eta. Egoera horietan laguntza eskaini asmoz, komenigarria ikusi da irakasleentzako argibide sorta bat prest

izatea, horrelako kasuetan zer egin jakiteko. Ordu eta erdiko iraupena du eta UEMako teknikariak ematen du ikastetxean bertan. Kasu honetan ere, HH eta Batxilergoa arteko irakasleentzat dago prestatuta, eta zikloz ziklo moldatzen da, berezitasunen arabera.

## 4.2. IKASLEAK



Ikasleei zuzendutako unitateen bidez, HHtik hasi eta Batxilergoa arteko jarduerak proposatzen ditu HEDATU egitasmoak. 2015etik hasita, urtez urte, materiala osatzen eta eguneratzen joan da UEMA, eta udalerrri euskaldunetarako zein arnaguneetarako baliabide propioak ere sortu ditu: liburuen edizio bereziak, erreferenteekin osatutako bideoak....

Atal honetan azalduko dira hezkuntzako urrats guztietan landu daitezkeen unitate didaktikoen xehetasunak. Unitate guztiak [uema.eus/hezkuntza](http://uema.eus/hezkuntza) webgunean daude jasota eta zikloz ziklo antolatuta, irakasleek sarbiderako erraztasunak izan ditzaten. Ondoko QR-aren bidez sar daiteke webgunera. Pasahitza *irakasleak* da.



### 4.2.1. HAUR HEZKUNTZA

Hezkuntza proiektuaren baitan, lau eta bost urteko haurrei zuzendutako bost unitate didaktiko ditu HEDATUk. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Euskara bilduma* osatzen duten lau liburu eta *Mokotxiki* ipuina dituzte oinarri unitateek. Ikasleak hizkuntzen arteko harremanez jabetu eta soziolinguistika gaiak lantzea dute helburu, curriculumarekin eta etapako eduki eta helburuekin bat eginez. Transmisioa, hizkuntzaren balioa eta erabilera, arnaguneak, bizilagun berriek euskara ikasteko dituzten aukerak eta hizkuntza aniztasuna lantzen dituzte, besteak beste.



#### 4.2.2. LEHEN HEZKUNTZA

Lehen Hezkuntzari dagokionez, LH4rako eta LH6rako launa saio daude prestatuta. LH4ko unitateen helburua da norbere hizkuntza biografia ezagutu; eta, etxean ez ezik, herrian ere euskarak zer toki duen ikustea. Horrez gain, lantzen dira arnasguneen inguruko lehen hurbilpen bat eta eragiletza edo aktibazioaren sustapena.

LH6an, berriz, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren hurbilpen bat egiten da; ondoren, arnasguneen definizioan sakontzeko. Ikerketa bidez lantzen dute herriko bilakaera soziolinguistikoa.

Unitate didaktikoez gain, hainbat saio osagarri eskaintzen dira LHn. Kasu hauetan, UEMAko teknikariak gidatzen ditu saioak. Batetik, LH2 eta LH3rako *Ispiluari begira* saioa dago. Bertan, haurren eta familien hizkuntza ohiturak ezagutzeko dinamikak egiten dira, eta ondoren gurasoei aurkezten zaie eginiko lana, aurrez aurre edo bideo baten bidez.

Bestalde, *Bagoaz* saioa dago. LH6an udalerrri euskaldun batetik euskara indize baxuagoa duen udalerrri batera joan behar duten ikasleei zuzendua. Ordubeteko saioan, jolas bidez, doazen lekura doazela euskarari eusteko deia egiten zaie, harrotasunez eta naturaltasunez beti euskaraz eginda.

Bide beretik, egoki ikusten den kasuetan, *Zatoz* saioa ere eskaintzen da. Gelan euskaraz ez dakiten ikasle berriak hasten direnean, haiei harrera egitea eta gainontzeko ikasleen hizkuntza ohiturek izan dezaketen eragin positiboa nabarmentzea da tailerraren helburua.

#### 4.2.3. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Seina jardueraz osaturiko bi unitate didaktiko daude DBH3 eta DBH4 mailetan lantzeko. Jarduera bakoitzak ordubete eta ordu eta erdi arteko denboralizazioa du. Helburua da arnasguneen eta hizkuntza ekologiaren kontzeptuak lantzea ikasgelan, bakoitzak hizkuntzaren biziberritzean duen papera ikusarazteko.

Jarduerak material didaktiko anitza dute: irakasleen eta ikasleen fitxak, PPTak, fitxa berezituak, ikus-entzunezkoak, mapak, atal osagarriak... eta unitateak garatzeko moduak zehaztuko du jarraipen sistema bera. Jarraipen sistema pertsonalizatua izango da,



malgutasuna eskaintzen baita unitateak garatzeko, ikastetxe bakoitzak bere egutegi akademikoaren arabera txertatu dezan egutegian. Batzuk tutoretzetan landuko dute, beste batzuk euskarari. Dena den, edozer ikasgaitan landu daiteke, zeharlerrotasuna emanaz gaiari, ikasleentzat irakasle erreferenteak areagotuz eta ikastetxearen norabidea markatuz.

UEMAk unitate didaktikoen inguruko formazio saioak eskaintzen dizkie irakasleei eta irakasleak dira jarduerak ikasgelan txertatzeaz arduratzen direnak.

#### 4.2.4. BATXILERGOA

Bi orduko saio bat eskaintzen da Batxilergo lehen edo bigarren mailan, zentroaren arabera. Kasu honetan, UEMAKo teknikariak gelara sartu, eta haiek gidatzen dute dinamika, parte-hartzean oinarritutako ariketekin. Arnasguneen garrantzia, udalerriko datuak, euskarazko kultur kontsumoa zein erreferenteak, norbere hizkuntz ohiturak... lantzen dira. Beti ere, gazteen ahalduntzeari begira.

Batxilergoko ikasleentzat ordubeteko saio bat eskaintzen da; eta, kasu honetan, UEMAKo teknikariak dira ikasgeletan sartzen direnak.

#### 4.3. GURASOAK

Gurasoentzat ere kontzientzia lantzeko tailerra eskaintzen da. UEMAKo teknikariak gidatzen du saioa, eta parte-hartzean dago oinarrituta. *Nola eragin gure seme-alaben hizkuntza ohituretan?* izena du, eta bertan lantzen da etxeko ohiturek eta gurasoen erreferentzialtasunak hizkuntza hautuetan izan dezakeen eragina. Horrez gain, euskarazko edukiak aurkitzeko eta erabiltzeko aholku batzuk ere ematen dira.

Saioa guraso euskaldunentzat sortu bazen ere, euskaraz ez dakiten gurasoentzat ere bertsio moldatua eskaintzen da. Guraso guztiekin batera egiteko aukera dago, aldi bereko itzulpena erabilita.

## 5. HEZKUNTZA EZ ARAUTUA

---

Hezkuntza arautuan ez ezik, aisialdian ere eragiteko bitartekoak ditu UEMAk. Haur eta nerabeen hizkuntza ohiturak ezartzerakoan, ezinbestekoa da eskolako eremutik kanpo ere euskararekiko bizipen positiboak izatea. Eredu ez formalean ere euskara erabili daitezkeela ikusi behar dute, gustuko duten hori ere euskaraz egin daitekeela eta euren adineko gainerako haur edo gazteak ere euskaraz bizi direla. Hori dela eta hezkuntza ez arautuan ere ahalegina egiten du UEMAk gaztetxoek kontzientziatzea lantzeko.

### 5.1. SALTO! GAZTEEN TOPAKETAK

Esparru ez formalak ikasleek euskararekiko duten lotura hori ezartzeko duen garrantziaz jabetuta, UEMAk hezkuntza proiektua zabaltzeko eta hezkuntza ez arautura saltoa egiteko erabakia hartu zuen. Hasiera batean, asteburu pasak antolatu ziren, baina azken urteetan, udaleku ibiltariak egin dira, 100 lagun elkartuz.

Gazteengandik jasotako erantzun ona ikusita, eta udalekuak bere helburuak betetzen dituela ikusita, udalekuak zabaltzen jarraitzeko asmoa du UEMAk. 14-18 urte arteko gazteentzat da eskaintza, eta nerabeek euskal hiztun gisa kontzientziatzeko eta aktibatzekeo baliagarria da.

### 5.2. BEGIRALE ETA HEZITZAILEENTZAT TAILERRA

Hezkuntza araututik kanpo udalerrri euskaldunetako haur eta gazteekin lan egiten duten begirale eta hezitzaileentzat ere formazio bat eskaintzen du UEMAk, Oinherriekin batera sortu eta landutakoa. Bi orduko saioan, euskararen erabileran, irizpideetan eta haurren parte-hartzean sakontzen da.

**Helburuak:** gazteekin lanean ari diren hezitzaile eta eragileei arnasguneetako eta udalerrri euskaldunetako euskararen egoeraren berri ematea eta hizkuntza irizpideei buruzko lanketa egitea.

## 6. ERRONKA: SISTEMATIZAZIOA

---

HEDATUren erronka da zentroz zentro sistematizatzea eta eskoletako curriculumean txertatzea, hizkuntza proiektuaren bidez, proiektua urtez urte garatzen eta sendotzen joateko tokian tokiko zentroetan.

Sistematizazioaren bidean, garrantzitsua da proiektuan ikastetxeko zuzendaritza, guraso elkarte zein irakasleen inplikazioa lortzea, baita udal hezkuntza batzordea ere.

Horrez gain, UEMArentzat oso garrantzitsua da ikastetxeen beharrei erantzun ahal izateko, materiala etengabe berritzen eta eguneratzen joatea; eta, horri lotuta, dagoeneko sortuta dagoen materiala herriko egoera soziolinguistikora moldatzen saiatzen da UEMA.